

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA




Belarriprest izatea erabaki duzu. 11 egunetan euskal hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu eta zuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Portaera horrek euskararen ateak zabalduko dizkizu, besteei hautatzeko aukera emango die eta denon artean erabilera handituko dugu.



Ohiturak aldatuko ditugu

Posible da. Ariketa taldean egingo dugu. Ez zara bakarrik egongo.



Ikurra eta hitza. Erakutsi zure hautua

11 egunez txapa agerian eraman eta lehen hitza euskaraz egitera anima zaitez.



Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari

Aztertu nork eta zertarako erabiltzen duen euskara zurekin. Proposatu bide berriak zabaltzea euskarari.



Zailtasunen aurrean ez etsi

Gonbidatu solaskideak euskaraz egitera. Saiatzea merezi du.



Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari

Aztertu nola gainditu zure eta ingurukoen aurreiritziak. Euskara ezusteko betetik dago.



Adostu ariketa ingurukoekin

Hurbilekoekin hasi eta ekin inertiak apurtzeari. Gonbidatu lagunak ariketan parte hartzera.



Belarriprest jokaera aktiboa da

Adierazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere, nahi beste erabili.



Elkartrukatu esperientziak beste parte hartzaileekin

Jaso zure bizipenak eta partekatu gainontzeko belarriprest eta ahobiziek.



Elkarrizketa elebidunetan eskatu euskara

Egoera bakoitzean zuk ahal eta nahi duzun hizkuntza erabili, baina eskatu euskaldunei zuri euskaraz egiteko.



Zure euskara da euskararik onena

Belarriprest zara, praktikatu euskara ahal eta nahi duzun guztietan.



Eskatu euskara

Ekin (bota seinalea, lehen hitza euskaraz egin), **adierazi** (euskara ulertzen duzula, jaso nahi duzula), **egiaztatu** (solaskidearekin elkar ulertzen ari zaretela), **eskatu** (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko, baina beti euskaraz), **gonbidatu** (solaskidea euskaraz jarraitzera)

